

STEE-EILAS



GELDITU DEZAGUN TTIPa!!!

TTIP: Europako Batasunaren (EB) eta Ameriketako Estatu Batuen arteko Merkataritza eta Inbertsio Lankidetzaren Transatlantikoa. Bloke baten arteko muga-zergak ezabatzeko asmoa du eta multinazioek aberastasuna metatzearen kontrako legedia deusezteko.

TTIPan jasotzen dira, besteak beste, halako proposamenak: lan- eta ingurumen-eskubideen kontrakoak, zerbitzu publiko guztiak privatizatzearen aldekoak –hezkuntza, osasuna, ura, elektrizitatea, garraioa, babes soziala...– botika etxeen patenteak babestearen aldekoak, genetikoki moldatutako produktuak ekoiztu eta hedatzearen aldekoak, kontratu publikoak privatizatzearen aldekoak...

TTIPa sinatzeak atzera bueltarik gabeko ondorioak izango ditu Europako langileentzat beren arautegi laboral eta sindikaletan, eta, beraz, beren eskubideetan; izan ere, Europan milioi gutxi gora lanpostu galduko direla kalkulatu da.

TTIPa Giza-eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren kontra doa, eskubide zibil eta politikoen nazioarteko hitzarmenen kontra, eta nola ez, herrien eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen kontra.

TTIPak Administrazio Publiko guztien zerbitzu eta hornidura jardura guzti-guztiei eragiten die, berdin dio udalekoa, autonomikoa edo zentrala den.

Europako batasunean, politika demokratikoa baztertu eta suntsitzeko borondate eta asmoaren erakusgarri dira TTIPren inguruko isilpekeria eta gardentasun falta.

Hezkuntza-sistema privatizatzearen aldeko presioa izugarri handituko da, eta arrisku larrian utziko ditu hezkuntza publikoaren finantzazioa eta hezkuntza publikoak formazioan duen erantzukizuna. Konpetentziak, lehiak eta bazterkeriak ordezkaturiko dute pertsona guztiontzat hezkuntza on eta bidezko bat lortzeko eredia.

STEE-EILASek exijitzen du negoziazio horiek bertan behera uzteko berehala, mehatxu bat direlako hezkuntza publikoaren eta pertsonen beharrezanaren eta eskubideetarako. Eta, batez ere, emakumeen eskubideen eta arrisku sozialean dauden jendarte taldeen eskubideen bermeak galbidean jartzen dituelako.

Hezkuntza-eskubidea eta giza-eskubideak ezin dira merkatuen esku utzi. Emakumeok, subjektu sozial eta politikoa garen neurrian, gure eskubideak aldarrikatzen eta defendatzen ditugu bazterrean nahi gaituen sistema hetero-patriarkalaren kontra, eta exijitzen dugu sistema politiko neoliberal hau gotik behera aldatzeko, zapaltzailea baita arlo guztietan: sozialean, ekonomikoan, kulturean eta ingurugiroarenean.

Legebiltzarren eta Parlamentuen funtzioak berreskuratzea aldarrikatzen dugu eta herri ekimen legegileak funtsezko izatea herrien eta pertsonen eskubideak korporazio ekonomiko handien negozio eta atzaparretatik kapo uzteko.

Txartel gorria ateratzen diogu TTIPren politika hetero-patriarkalari, eta demokraziaren eta gizartearen duintasunaren kontrakoari.